

biolentziaren erabiltzea bidezko bihur deza-keenik? Non hasten da eta non bukatzen biolentziaren legitimazioa? Hauek dirateke galdera nagusiak. Egun, "edonondik datorrelarik ere, bortxa gaitzetsi egin behar da" dioen teoria ari da barreiatzen boteredunen poderioz, sasi-kriterio filosofiko, politiko eta ekonomikoak neurrigabe eta lotsagarriro nahastuz. Baina, filosofiaren ikuspegitik eta, bereziki, *etikarenetik, hiru joera nabari dira: 1. biolentzia, sektore sozial jakin baten beharrek hala eskatuz gero, onesten dutenena: *Estatuaren segurtasuna, herri-borroka armatuaren kontrako defentsa, herritarren manifestazioen kontrako neurriak, beharizan eta interes "zientifikoak", etab. direla medio. 2. Biolentzia, ezin kasutan onartzen ez dutenena: biolentziak biolentzia baino ez duelako eragiten, biolentziari biolentziaz ezin dakioketelako erantzun. 3. Biolentzia, kolektibitatearen *askatasunak hala eskatzen duenean, besterik ezean, arma iraultzailatzat jotzen dutenena: zapalkuntza ekonomiko, sozial, nazional, politiko edota kultural larri bat dela medio.

Esan dezagun, bestalde, biolentziaren auziak zerikusi handia duela "giza erasokortasun" izeneko arazo ezagunarekin, filosofo, antropologo, etologo eta soziologo askok fenomeno hori berezko ote denentz, hots, gizakiari datxekicn joera ote den ala ez, eta zein neurritan, galdetu ohi bait dute.

Bosanquet, Bernard

Almwick-en (Ingalaterra) 1848an jaio eta London-en 1923an hila, Oxford-en ikasi ondoren bertako Unibersity College-n (1871-1881) eta Saint. Andrews-ko Unibertsitatean (1903-1908) irakatsi zuen. Lehenik Hegel-en eta gero Bradley-ren eragina jasan zuen. "Oxford-eko Eskola"ko eta Ingalaterrako "Hegeldar Eskola"ko pentsalari garrantzitsuenetakotzat jotzen da. Obrak: A History of Aesthetic, 1892 (espainieraz itz.: Historia de la estética, 1949); The Philosophical Theory of the State, 1899.

Boscovich, Roger Jose F.

Dubrovnik-en (Ragusa-Dalmazia) 1711n jaio eta 1787an hildako filosofo jesuita. Leibniz eta Newton-ek izan zuten beragan eraginik eta bere garaian asko eztabaidatutako gai honetaz arduratu zen: hots, nola ote den posible gorputzek eta indarrek elkarren arteko eragina izatea elkar ukitu gabe. "Urrutitiko eragin" hau adierazteko "indarpuntu"aren edo "atomo materiagabeko"aren teoriak baliatu zen. Obra: Philosophiae naturalis theoria redacta ad unicam legem virium in natura existentium, 1758.

Boterea

Nork bere *nahia inorenaren "gainetik ezartzeko" eta inoren jokabideak determinatzeko *ahala da. Esangura zabala du "ahala" berbak, ordea. Orokorri harturik, gaitasun fisikoa, izpirituala nahiz soziala adieraz dezake. Baina berezikiago, gaitasun izpiritualaren mundua adierazteko erabiltzen da, indarra bereziki gaitasun fisikoa edota izadian ezarritako legeen arabera ari dena adierazteko erabiltzen den bezala.

Izaki izpiritudunari dagokio ahala eta, hain zuzen ere, horren gaitasun izpiritualak aditzera emateko *"ahalmenak" berba erabiltzen da: adimena, arrazoimena, nahimena, oroimena, etab.

Hainbat motatakoa izan daiteke boterea: ekonomikoa, ideologikoa, militarra, soziala, kulturala, politikoa. Botere herritarra aipatzen denean, berriz, botere espezifikorik batere ez duen herriaren jarkiera-indarra adierazten da.

Erlaziozkoa eta soziala da boterea. Ez da derrigorrez --edo berez norberaren nahia inorenaren kontra jartzeko ahala. Baina benetako boterea eginkorra da: hots, inoren nahiari eragitean gauzatzen da. "Boterepeko" aren nahiaren jarkiera "boteredun"aren nahiaren ezarmena baino indartsuagoa den neurrian, botereduna boteregabatu egiten da.

Baina guzti hori oso abstraktua da. Boterea, ordea, oso konkretua gertatzen da *gizartearen bizitzan. Konkurrentziaren gain eraikitako *zibilizazioan boterea eskuratzeko borroka etengabea da, eta oinarri-oinarriko arazoa. Teorian behintzat, botere-mota desberdinen arteko taxuketa eta oreka besterik ez da *demokrazia. Eta alderdi politikoa botere politikoa lortzeko --edo besterena kontrolatzeko-- makinak dira. Gizartearen edonolako taxukeratan eta edozein mailatan, boterearen fenomenoak hortxe dago, erabiltzeko ala jasateko.

Boterearen inguruan sortzen den arazo nagusienetako bat, *agintaritzarekin duen harremana da. Inoren boterea boterepekoek aitortu eta onartzen dutenean, orduan bihurtzen da agintaritza. Agintaritza, ordea, izan daiteke legezkoa, baina ez bidezkoa, botereak bere buruaren zuribide bezala ezarri baldin badu; alderantziz, izan daiteke bidezkoa, legezatu gabe baldin badago ere. Lege bidezko agintaritza edo autoritatea eduki lezake agintariak, baina bere agintea ezartzeko ahalik ez izan: orduan ez du benetan botererik. Bestalde, lege bidezko agintaritzaren izenean boterea ezartzen duenak ez du sarritan bidezko agintaritzarik: orduan boterepekoen nahiaren kontra ezartzen du bere nahia boteredunak.

Puntu honetan boterearen bidezketasunaren eta boterearen gehiegikeriaren arazo zabalean sartzen gara.

Gizartea saiatzan da botereen joko legezatzan, taxutzen eta mugatzen. Edozein gizartetan beharrezkoa da hori. Baina boterea *legea baino lehenagokoa da, eta boteredunek --edo boterea elkarren artean banatu dutenek-- egiten dituzte legeak. Horregatik, botere ezarriak legezatzeko eta legitimatzeko besterik ez dira sarritan legeak. Bestalde, legeen bidez botere sozialen partetxo bat besterik ez da arautzen. Legeztatu gabe gelditzen da "botere faktiko"en mundua, hain zuzen ere, horren indarrak ihesegiten bait die legegileei eta legezko botereei.

Horrezaz gain, legepeko botereetan ere kontzentrazioaren arazoa bizi-bizia da. Hainbat botere-mota aipatu dugu lehen; sarritan denak bateratzera eta esku gutxitan jartzera jotzen da gizartean. Horregatik, botere-mota desberdinen arteko kontrolak eratu eta eraginkortu beharra dago, alde batetik; eta bestetik, botere-mota bakoitzeko eskudunak ere ugaritu eta zabaldu egin behar dira; botere politiko demokratikoan egiten den bezala: botere legala, judiziala eta exekutiboa banatuz.

Gizartearen eraketa aztertzean eta kritikatzean etengabe ipini behar da boterearen bidezketasunari edota abusuari buruzko galdera. Bi problema daude funtsezkoak: a) Zein neurritan uzten duen botereak menpekoen askatasuna betetzeko lekuri *gizartearen eta *gizakiaren bizitzan; b) Nola obra daitekeen boterea *bortxarik gabe edo boterepekoen *nahia behartu gabe. Askatasunari eta bortxari hertsiki loturik dago "botere" kontzeptua.

Botere-zentruak berez jotzen dute *absolutu eta orohartzaille izatera: beren eraginarean eta kontrolaren barrutiak gero eta zabalduagotuz, eta boterepeko edo menpekoen askatasun-barrutia gero eta estuagotuz. Horregatik, botere ez-bidezkoaren atzealdea bortxa da: hots, boteredunaren nahia ezartzeko erabiltzen den indarkeria; baina oso sarritan botere bidezkoak edo legitimoak ere bortxari oratzen dio, bere agintaritzaz egiazatzeko.

Horrelako botereak probokatzen du, kontraeraginez, boterepekoen aldetikako jarkiera, beren askatasun-barrutia zaindu beharrean. Eta ondorioz, kontra-bortxari oratzen dio boteregabeen jarkierak, boteredunen bortxa parekatzeko edo suntsitzeko.

Kontra-boterea lortzeko eta finkatzeko bortxa erabiltzen bada ere, bortxa erabiltzeak berak nahiz indarra edukitzeak ez du boteredun izatea adierazten. Boterea nahiz

jarkiera indar handikoak ala txikikoak izan daitezke. Baina sarritan botererik gabekoen ahal soziala adierazteko erabiltzen da "indarra" berba, bortxaz baliatzen ez bada ere.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Ahala; Estatu; Bortxa; Agintea.

Bouille, Charles

1553an hila. Errenazimentuko filosofia humanistikoaren pentsalari errepresentatzaileenetakoa bat da. Obra: De sapiente.

Boutroux, Emile

Montrouge-n (Sena) 1845ean jaiotako eta Parisen 1921ean hila. "École Normale Supérieure"n (1877-1885) eta Sorbone-n (1885az gero) irakasle izan zen. Jules Lachelier-en joera positibo eta izpiritualista jarraitu zuen. Izan ere hau zen, beraren ustez, garai hartan garaile zebilen "mekanismo naturalista" gaingintzeko bide bakarra. Obrak: Des vérités éternelles chez Descartes, 1927; De la contingence des lois de la nature, 1874; Questions de Morale et de Pédagogie, 1896.

Bowne, Borden Parker

Leonardsville-n (Estatu Batuak) jaiotako eta 1845ean New York, Halle eta Göttingen-en ikasi ondoren, Boston-eko Unibertsitatean irakasle izan zen 1876an hasi eta 1910ean hil zen arte. Ipar Amerikako *pertsonalismoaren errepresentatzaile nabarmena da eta beraren filosofiari "idealismo pertsonal" a deitu izan zaio; berak, berriz, "empirismo transzendental" a deitzen zion. Beraren gai funtsezkoena *arrazoimen teorikoaren eta praktikoaren arteko harmonia bilatzea izan zen. Obrak: Studies in Theism, 1879; Principles of Ethics, 1892; Personalism, 1908.

Boyle, Robert

Lismore-n (Irlanda) 1627an jaiotako eta London-en 1691n hildako filosofo eta zientzialaria. Airearen elastikotasuna eta pisua aztertutik ondoren, "Boyle-n legea" deitutakoa formulatu zuen, gas baten presioaren eta bolumenen arteko erlazioa alderantziz proportzionala dela adierazten duena, alegia.

Filosofia esperimentalak aldeztu zuen, *hipotesiak eta *teoriak esperimentuaren bidez egiazta daitezkeen heinean onarturik. Bestalde, *mekanizismo hertsia kritikatu zuen, beraren eritziz *organismoaren *jokabidea ezin bait da soil-soilik *zergati mekanikoaren bidez azaldu. Obrak: The Experimental History of Colours, 1663; General History of the Air, 1691.